

Dokumentu mota: **Idatziz erantzuteko galderak**

Nori zuzendua: **Jokin Bildarratz Sorron Hezkuntza sailburuari**

Izapidetze organoa: **Legebiltzarreko Mahaia**

Proposatzailea: **Ikoitz Arrese Otegi**

Talde parlamentarioa: **EH Bildu**

Ekimenaren izenburua: ***Antonio Trueba BHI proiektu berriaren atzerapenei buruz.***

ZIOA

Joan den 2020ko abuztuaren 27an, EH Bildu legebiltzar taldeak Barakaldoko Antonio Trueba BHIren proiektu berriaren inguruko galdera sorta egin zuen (12\10\05\03\00014 ekimena).

3 urte igaro dira eta Truebako proiektuak etenda jarraitzen du. Hezkuntza komunitateak ez du inongo informaziorik eta obrek paralizatuta jarraitzen dute.

Hau dela eta, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo galderak egiten dizkiot Hezkuntza sailburuari idatziz erantzun ditzan.

GALDERAK

1. Aipatu obraren inguruan informazioa helarazi dio Hezkuntza sailak Antonio Trueba BHIko hezkuntza komunitateari? Noiz?
2. Zein da "2019-2023rako Hezkuntza Azpiegituren Planean" jasota agertzen den Trueba ikastetxe berria eraikitze konpromisoari dagozkion azken informazioa?
3. Noiz aurreikusten da eraikin berriaren obraren hasiera?
4. Eta aipatu obraren bukaera?

Gasteizen, 2023ko martxoaren 29an

Ikoitz Arrese Otegi

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaile-ordea